

Gogor santanetan!



Elgoibar - 1084. zenb. XXV urtea - 2018-07-13



Jon Aranoa
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoizpeindagi zerbitzua eskuko.
Datu ordua hartzeko.



IKASBAI akademia
Klase partikularrak ezin hobe hasteko
Lehen Hezkuntza
DBH
Talde txikiak / Gai guztiak
667 261 248 (Leire)
Irailetik aurrera Basarte, 13
bulegoan aurkituko gaituzu



Zure etxean zaude

**BOE-ko
etxebizitza,
garaje eta trastelekuen
hurrengo eraikuntza**

943 31 65 86

www.sukia.com



LAN DEIALDIA

MASTED ASSEMBLY. Makina bereziak eta transfer makinak egiten dituen enpresa. Itziarren dago eta automozio osagaien nazioarteko merkatuan leku garrantzitsua du. Honako lanpostuak bete behar ditu:



<p>BULEGO TEKNIKOKO ARDURADUNA</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Zuzendaritza teknikoaren esanetara makinaren diseinuaren garapenaz arduratuko da. Bulego teknikoko balibideak kudeatuko ditu eta bezeroekiko harremana bere esku gongo da. 	<p>PRESTATZE - TEKNIKARIA</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Dagokion saileko arduradunaren esanetara, makinak martxan jartzeaz arduratuko da, enpresan eta bezeroaren etxean. <input type="checkbox"/> Makina erremintako muntaiaren eta doikuntzan esperientzia beharrezkoak dira. Baita CNC programazioan eskarmentua eta bidaiatzeko prestutasuna. 	<p>MUNTATZAILE - DOITZAILE MEKANIKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Saileko arduradunaren mende, multzo mekanikoen muntaiaren eta doikuntzaz arduratuko da. <input type="checkbox"/> Beharrezkoa da muntaiaren esperientzia izatea.
---	--	---

Lanpostu guztietan aintzat hartuko da ingelesaren ezagutza.
Soldata esperientziaren eta gaitasunaren arabera.

Interesa dutenek honako e-posta helbidera bidali dezakete beraien curriculumak: direccion@masted.net
Konfidentzialtasun osoa bermatzen dugu.

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Lerro hauen bidez Mendaroko Txirrindulari Elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu Jabier Ezenarro Oroitzarrea lasterketa babestu duzuen guztioi eta zapatuko egun sargorian boluntario lanetara batu zineten lagunoi. Eskerrik asko, era berean, txirrindularitza lasterketen egutegian gurea aukeratu duzuen talde eta norbanakooi, zuek gabe alferrik ariko ginatkeelako gu. Mila esker. Datorren urtean ere ondoan izango zaituztegun lanean jarraituko dugu guk. Ordura arte, ondo izan.

Mendaroko Txirrindulari Elkartea

► OHARRA

Aste honetako izango da opor aurreko azkeneko BARRENA. Hurrengo aldizkaria sanbartolomeetan jasoko duzue. Uztailaren 27an itxiko dugu bulegoa eta abuztuaren 27an zabalduko dugu berriro.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitzik argitaratuko.



Anastasio Cearsolo Aguirre

2018ko uztailaren 11n hil zen, 74 urte zituela.

**Urak dakarrena urak darama,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.
Eskerrik asko bihotz-bihotzetik.**



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek izango du aurten santanak hasteko ohorea

Hogeita bost urte beteko ditugula ospatzen ari garenean iritsi zaigu Mendaroko Udalaren eskaintza. Aurten BARREnek hasiko ditu Mendaroko jaiak, santanak. Lerro hauen bidez, beraz, eskerrak eman nahiko genizkioke lehenengo eta behin Mendaroko Udalari, akordugatik.

Ohore handia izango da guretzat santanei hasiera emango dien txupina botatzea. Bai horixe! Baina Udalari ez ezik, eskerrak eman nahiko genizkioke urte guzti hauetan proiektu honen ondoan izan diren gainerako mendarotar guztiei ere. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak 1993. urtean zabaldu zion atea Mendarori, Anton Zubiaurre (EA) alkate zen garaian, eta ordutik asko izan zarete proiektu honi zuen onena eman diozuenak. Doala hemendik beraz gure eskerrik zintzoena 25 urte hauetan proiektu hau diruz lagundu duzuen babesle eta laguntzaile guztioi, BARREN edukiz bete duzuen mendarotar guztioi eta bereziki irakurle zaituztegunoi. Mendarok badauka izana, badauka nortasuna, eta jarraitu nahiko genuke urte askoan zuekin batera herri honen historia euskaraz idazten. Horixe delako gurea: euskara ahalik eta etxe gehienetara eramatea eta euskaratik eta gure mundu erreferentzialetik geure historia idaztea.

Esan dugu, baina, BARREN ez dugula bakarrik egiten. Gaur bost lagunek dihardugu lanean erredakzioan, baina handia da gure kolaboratzaileen sarea. Aldi honetan hiru mendarotar ditugu aldiro-aldiro kolaboratzen dutenen zerrendan: Ana Alberdi, Edurne Izagirre eta Enetz Ezenarro, baina atzera begiratzeko badugu luzea da soka. Izan ditugu aldi behingo iritzi-emai-leak eta izan ditugu erredakzioko lanak bete dituzten kolaboratzaileak ere. Maria Longarte, Aingeru Gallastegi, Haritz Goikoetxea, Ziortza Urbieta, Iraide Loiola, Garbiñe Zabala, Alaitz Vives, Aitor Etxeberria, Mikel Garate eta Joseba Etxeberria batu ziren herritarrek osatutako hasierako lantalde hartara, baina 2002a bitartean, kimu berri ugari izan zituen lantalde hark, eta gazte askoren eskola eta herri oso baten erakusleho izan zen.

Urte askoan Oihana Tarragualek hartu zuen arduraren zama handiena, eta 2002an, ikusirik gero eta zailagoa zela lan-dinamika horri eustea, Ainhoa Andonegik, gaur BARREneko zuzendaria denak, hartu zuen Kilibarrenen ardura. Nolanahi ere, eutsi genien aldi aldi kolaboratzaileei eta dozenaka iritzi-emai-le izan ditugu urte guzti hauetan. Eta jakina, haiek denekin batera ospatu nahiko genuke Mendaroko Udalak era honetan egin digun omenaldia, eta gonbidatu ditugu udaletxeko balkoira. Eta zuri, irakurle lagun, zer esango dizugu ba, orain arte esan ez dizugunik: estimatzen dugula zure bultzada, eskertzen dizugula astero eskaintzen diguzun arreta eta eginahalak eta bi egingo ditugula luzaroan ondoan izan zaitzagun.

Eta orain bai, gora Mendaroko eta gora santanak! Izan daitezela santana zoriontsuak mendarotar guztiontzat eta festara batuko zareten gainerakoentzat. Ospa ditugula elkarrekin, libre eta bizi, eta Sonia Garcia alkateak



berak egitarauko agurrean esan bezala, egin dagigun dantzan zapata-zolak apurto arte. Baina amaitu aurretik, lizentzia txiki bat hartu nahiko genuke, oraingoan bi-hiru berba esateko aukera eman digutela baliatuta: egin dagigun euskaraz, lagunok. Euskaraldian sartu da Mendaroko ere, gure hizkuntza ohiturak aldatzea proposatzen duen ariketan, eta parte hartzeri animatu nahi zaituztegu zuek ere. Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatu nahi dugu, gure ohiko harremanetan euskara gehiago erabili, eta zuek ere gure ondoan nahi zaituztegu. Besterik ez ba. Eman izena Euskaraldian, lotu zapi berdea lepora eta bizi santanak!



UZTAILAK 13, BARIXAKUA

11:00 Pertsona guztien integratzearako Kolore Biziak elkarteak antolatutako ekintzak, udaletxeko plazan.

UZTAILAK 14, ZAPATUA

22:00 Aire libreko zine emanaldia Goñati pilotalekuan. 'Handia' filma eskainiko dute.

UZTAILAK 25, ASTEAZKENA

Santio Eguna

12:00 Meza nagusia Garagartzako elizan.

18:30 Salbea Azpilgoetako elizan. Udaletxetik abiatuko da komisioa, txistulariak lagun dituztela. Ondoren, kalejira, Bizi Poza txarangarekin.

19:30 Txupinazoa udaletxeko balkoitik. BARREN astekariak botako du txupina eta Bizi Poza txarangak alaituko du. Ondoren, Katasorgiñaren jaitsiera.

20:00 2017. urtean jaiotako haurrei ongietorria egiteko ekitaldia udaletxeko udalbatza aretoan.

22:30 Nagusien danborrada Elgoibarko Mausitxa txarangarekin.

Ondoren, Egurra eta Kitto eta Vendetta taldeen kontzertua.

UZTAILAK 26, OSTEGUNA

Santana Eguna

10:30 Azpilgoetatik Santanara prozesioa Mendaroko txistulariekin.

11:00 Meza nagusia Santanan.

Ondoren, erromeria Astiazaran II eta Andonegi trikitilariekin eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.

18:00 Herri kirol saioa. Gipuzkoako Lehenengo Mailako Aizko-

lari Txapelketako finala. 54 ontzako lau enbor, 60ko beste lau eta 72 ontzako bi enbor ebaki beharko dituzte. Aizkolariak: Julen Alberdi Zinkunegi, Iñaki Azurmendi Peñagarikano, Mikel Larrañaga Elgarresta, Ugaitz Mugertza Mendizabal, Xabier Orbeagozo Aginagalde Arria V.a eta Joseba Otaegi Saizar.

Ondoren, Mariachi Imperial Eleganciakoekin kalejira.

23:00 Gozategi taldearen kontzertua.

Ondoren, Dj. Elepunto.

UZTAILAK 27 OSTIRALA

Haurren Eguna

11:00 Pintura lehiaketa ikastolako jolastokian. Gaia: Mendaroko jaiak. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat.

11:00 Haurrentzako jolas atrakzioak ikastolako jolastokian 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

13:00 Mendaroko pilotari gaztetxoaren erakustaldia Goñati pilotalekuan.

14:30 Gaztetxoaren bazkaria ikastolako jolastokian. Nork bere bazkaria eraman beharko du. Udalak edaria eta fruta banatuko ditu.

15:30 Jolasak.

16:30 Jolas atrakzioak ikastolako jolastokian.

18:00 Haur danborrada Bizi Poza txarangarekin. Ondoren, zezen puzgarrien entzierroa, Herriko Enparantzan.

23:00 Oxabi taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 28, ZAPATUA

Kuadrillen Eguna

12:30 Paella lehiaketaren hasiera, Bizi Poza txarangak alaituta. 14:30erako bukatu beharko da.

15:00 Herri bazkaria.

17:00 Bocabeats komedia saioa, Herriko Enparantzan. Euskal abestiak, rapa eta reggaea nahasten dituzte.

18:30 Goitibehera jaitsiera Azpilgoetako elizatik.

20:00 Motxaila Band elektrotxaranga, kalez kale.

23:30 Playback txapelketa eta sari banaketa.

Ondoren, Energy orkestrarekin dantzaldia eta Dj Jotaxoren saioa gero, goizaldera arte.

UZTAILAK 29, DOMEKA

Jubilatuven Eguna

12:00 Meza nagusia Azpilgoetan.

Ondoren, Txutxu trenaren izango dute Azpilgoetatik plazarako bidea egiteko.

13:30 Herriko euskal dantza taldekoen saioa frontoian.

14:30 Bazkaria, Aizpen.

16:30 Txutxu trenaren lehen osteria.

17:30 Algara dantza taldekoen ikuskizuna frontoian.

Ondoren, zezen txikiak eta pottokak Herriko Enparantzan.

Gero, Lehian taldearekin dantzaldia.

22:30 Katasorgiñaren igoera eta azken traka.



Motxaila Band, motxaila herrian

Motxaila Band herriko elektrotarangaz gozatzeko aukera izango dute mendaroez uztailearen 28an, Kuadrilla Egunean (20:00). Kontzertu horren aitzakian, Xeber Loiola (saxoa), Mikel Tellabide (gitarra) eta Ekhi Unanue (gitarra) taldekideekin izan gara, taldearen 10 urteko ibilbideaz solasean. Hiru horiek eta Aitor Basurto (baxua), Ibai Idoeta (ahotsa) eta Andoni Zulaikak (bateria) osatzen dute egun seikotea.

- AINARA ARGOTIA -

Ornola tabernan, bariku gauari zapatu goizaldeko orduak batzen zitzaizkien garaian, bururatu zitzaizen elektrotarangaz sortzea gaur Motxaila Bandeko beteranokak direnei. 2008ko negua zen. R.I.P., Eskorbuto, Piperrak... eta 80ko hamarkadan rock erradikala egiten zuten euskal taldeen letrak buruz zekizkiten eta kantatu ere makina bat aldiz kantatuko zituzten egokiera etorritakoan. Bizi zuten musika. Mendaron bertan ere Gazte Asanbladak antolatutako bazkalosteren batean arituak ziren talde horiek bertsionatzen Xeber bera eta Ibai Idoeta, saxofoia eta atabalarekin. Bultzadatxo bat baino ez zuten behar, denak ere nahikoa berotuta zeudelako ordurako, eta ausartu ziren halako batean. Gaztetxean egin zituzten aurreneko entseguak, baina laster zabalduko ziren Udalak Musika Eskola. Aitor Basurto (gitarra), Ibai Idoeta (ahotsa), Xeber Loiola (saxoa) eta Andoni Zulaika (gitarra), Borja Rodriguez (baxua) eta Enekoitz Zubiaurre (kaxa) batu ziren entsegetara eta Mikel Tarragualek lehenengo eta Aitor Agirrebeñak gero egin zituzten saio batzuk bonboarekin, baina ez ziren moldatu nonbait, ez zuten-eta lar irauten. Mikel eta Aitor moldatu ez zirenez, Andonik hartu behar izan zuen bonboa gero eta gitarra jole batekin moldatu ziren, Aitorrekin.

Estreinakoa, herrian

Eta hilabete batzuk entseगतzen eman ostean, batu zituzten indarrak eta inori ezer esateke, estreinako saioa Mendarozabalaren

egitea erabaki zuten. Eroskiko gurdia bete eta Txirristaka aurrera azaldu ziren, "hazi-hazi eginda". Santanak ziren. Berehala zabaldu zen berria ahozahoko. "Izugarrria izan zen", ekarri du gogora Xeberrek. "Hain izan zen ona, etorri ginela gora eta biharamuranean, Santa Ana eguneko bazkari ostean, berriro irten ginela kalera". Herria izaten ei da lehenengo aldirako plazarik zailena, baina zer diren gauzak, Motxaila Bandek saio inprobisatu bi haiek izan zituen abantatzeko hauspo. "Xehebrea izan zen santanetako estreinako hura. Saxoa ez zen entzun ere egiten eta lotu genion mikrofonoa zeloarekin kanpaira, eta aurrera". Beharrak asko ziren, eta hasi ziren poliki-poliki kalean jotzeko ezinbesteko diren trasteak inguratzen. "Bozgorailuak eta generadorea errentan hartzen genituen eta mahaia handik gutxira erosi genuen. Eroskiko gurdia batean eramaten genituen denak", zehaztu dute.

Eta oraindik guztiz osatzeke zeudela iritsi zitzaizen lehenengo eskaera. "Zumaiara joan ginen Gazte Asanbladak antolatutako jai batera. Sekulako jendetza batu zen eta nik neuk oso oroitzapen onak dauzkat, baina handik urte batzuetara zumaiar bat etorri zitzaigun esanez zein txarrak ginen orduan", oroitu du Xeberrek. Baina ez zuten denek berdin pentsatu nonbait, berehala hasi zitzaizkielako handik eta hemendik deika. Eibarren, hiru-lau bat aldiz jo zuten denbora gutxiren barruan, Eskozia La Bravak eskatuta, eta hasi ziren izena hartzen. Ordurako, formatua aldatuta zuten, eta Borjak ere utzia zuen taldea. Aitorrek hartuta zuen



baxua, Andoni hasia zen haren ordeztararekin berriz, eta bonboa laga eta bateriarekin ari zen Enekoitz. Eta horrek bereiztu zituen apur bat gainerako elektrotzarangetatik. "Ez dugu ikusi gu bezala bateria osoa ateratzen duen beste elektrotzarangarik", esan du Mikelek [2012an batu zen taldera, Enekoitzek lan kontuengatik taldea utzi, Andoni bateria jotzera pasa eta taldekideek gitarra-jole baten falta igarri zutenean. Ordizian izan zuen estreinakoa Mikelek. Laster batuko zen Ekhi Unanue ere taldera, 2013an bigarren gitarra-jole gisa]. Soinua hobetu beharrak eraman zituen bateria sartzera eta hobetu zuten, baina mugikortasunean eta erosotasunean galdu ere bai. "Eroskiko bi gurdirekin irteten ginen kalera. Batean, ekipoa, eta bestean, bateria genituela. Rollo bat zen. Dena zen kablea eta noiz tratatuko ibiltzen ginen. Nik neuk ez nion lbairi begirik kentzen, kableetan tratatuko zelakoan. Zenbat ez ote genuen irabazi hariarik gabeko mikro eta abarrekin funtzionatzen hasi ginenean! Hariarik gabe hasteak bidea eman zigun gurdi berria neurria egiteko eta mugikortasunean irabazteko. Hori eta 2014an furgoneta erostea aipatuko nitzuke nik talde honen mugarriztat", gehitu du.

Formato prekario horrekin makina bat kontzertu eman zituzten hala ere, ordurako lagunek han-hemen zabaldutako pegatinei eta batez ere sare sozialei esker oso zabaldua zelako bazterretan Motxaila Band izena. Formato horrekin iritsi ziren Bilboko Aste Nagusian jotzera ere, eta huraxe dute euren 10 urteko ibilbideko kontzertu gogoangarrietako bat. Ez baita edozelako plaza Bilbo, eta are gutxiago Aste Nagusian. "Gorabeherak gorabehera, izugarria izan zen", esan du Xeberrek. Bilbitik txosnaguneraino jotzeko kontratatu zituzten Kaskagorri peñakoek, ekipo elektronikoarekin ibilian jotzeko gai ez ziren arren, eta are gutxiago, egun hartan legez, eurlan. Baina jakin bazekiten aukera paregabea zutela hura. Euforia hartan, Enekoitzi okurritu zitzaion ziria sartu behar ziela taldekideei. "Txastonaren barilla ahaztu zitzaioela esan zion Andoniri, baina halako batean, aurpegia aldatu zitzaion eta aitortu zigun barilla ezetz, baina barilla eustekoa ahaztu zitzaioela. Beste denak dena muntatzen laga eta abiada bizian bueltatu ginen biok Mendarora bila, eta zer, eta giltzik ez!", dio Xeberrek. Hamar urtean makina bat anekdota pilatu dituzte, "hemen kontatzekoak baino handiagoak". Baita ezbeharrak ere, azkena Zornotzan. "Generadorea izorratu zitzaigun eta haizeak manpara bat bota eta saxoa harrapatu zuen azpian. Antolatzaileek eurek inguratu zizkiguten ordeztakoak", ekarri du akordura Ekhi Unanuek, taldera batzen azkenak [Tempestades taldean ibilitakoa zen aurrez]. Kontzertu ahaztezinak ere izan dituzte, txarrerakoak ere bai, Orduñakoa kasu. "Sekukoak ari zen botatzen eta antolakuntzakoek haima bat jarri ziguten plazan. Eta hantxe jo genuen, begira inor ez genuela. Etsigarria izan zen", dio Xeberrek.

Kontzertuz kontzertu

Bilboko Aste Nagusia eta gero etorri ziren sanferminak. Bi-hiru urtez jo zuten Iruñean, jairik handienean. "Zoramena izan zen. Sarri, sarri kantatzen hasi eta hango jendetza dena saltoka, eta gu, gero eta atzerago, noiz azpian hartuko". Asko dira, memorian iltzatuta dituzten kontzertuak, baina azkenetako bat azpimarratu dute, Euskal Herriatik kanpora emandako estreinakoa. Astudilloko Rock, punk jaialdian (Palentzia) izan dira berriki. "Antolatzaileak gaztelarazkoak kantatzeko eskatu ziguten eta dudatan joan ginen, baina demasa izan zen. Ez zitzaizkigun ba hasi hangoak euskaraz kantatzen! Flipantea. Escorbutoren *Maldito País* jotzera ez ginen ausartzen, hango bandera denak ikusita, eta halako batean etorri zen antolatzaileetako bat eta han hasi zen kantuan: *Maldito país, España. Este maldito país es una gran pocilga...*".

Kantutegi zabala dute, eta plaza eta publikoaren arabera erabakitzen dute zer jo. "Gure publiko zintzoena ume-kotxedunak dira. Dena ematen dute". Urtean sei bat kantu gehitzen dituzte kantutegira. Urtarrilean egin ohi duten afarian erabakitzen dituzte hori eta egutegia. "Apiriletik urrira arte ibiltzen gara plazaz plaza, baina erabakita daukagu gehinez hilean bi lekutara joatea, lagunartean gozatzeko egiten dugulako hau eta gure familia bizitzarekin kontziliatu nahi dugulako. Urtean 30 bat eskabide izaten ditugu, eta aukeratu egiten dugu. Hori bai, ahalegintzen gara inori zatarririk ez egiten eta behintzat Gazte Asanblada eta elkarte sozialei ezetzik ez ematen. Prezioa ere egokitu izan dugu haien ahaletara, ikasi dugulako harrera onak munduko diru guztiak baino gehiago balio duela", esan du Xeberrek. Uztailean, hiru kontzertu dituzte programatuta: Markinan joko dute zapatuan, Karmenetan, Bilbora joango dira uztailearen 21ean, Konpartsen Eguneko jaira, eta herrian ariko dira uztailearen 28an, Kuadrillen Egunez. "Sekulako ilusioz gaude", aitortu dute.



LEIRE JANTZIDENDA
Ampilgoets, 24
MENDARO
Tel.: 943 033 629
leirejantzidenda@ourlook.com
leire jantzidenda

Janet Esteban eta Karmelo Gonzalez

Kolore Guztiak kultur arteko elkarteak hainbat tailer eta jolas prestatu ditu gaurko Mendaron. Ez dute ekimen berria hau, aurtengoa hirugarren urtea dutelako. Elkarte bera eta Kolore Guztiak-ek Mendaron daukan etxebizitzan dauden gazteak aurkezteko baliatuko dute gaurko saioa [11:00etatik 13:30era]. Hala azaldu digute Mendaroko bi hezitzaileek, Janet Estebanek (Bilbo, 1981) eta Karmelo Gonzalezek (Azpeitia, 1981).

- AINARA ARGOTIA -



“Gazte hauen inguruan aurreiritzi asko dauzkagu, eta asko okerrak dira”

◆ Zer da Kolore Guztiak?

Kultura arteko elkarte da gurea, bereziki etorkin gazteekin lan egiten duena. Gipuzkoan zazpi etxebizitza dauzkagu: Bina Hernanin eta Donostian, eta bana Beasainen, Pasaiain eta Mendaron. Batzeko leku bat ere badaukagu, eta hainbat proiektu ezberdin lantzen ditugu, beti ere integrazioa eta berdintasuna helburu izanda.

◆ Zein perfiletako gazteak dira?

Adinez nagusiak dira denak, 18 eta 23 urte bitartekoak. Gehienak Afrikatik etorritakoak dira, baina Pasaiako etxean hemen bertako gazteak hartzen ere bagabiltza azkeneko hiru-lau urteotan. Etxean arazoak izan dituztelako edo beste mila arrazoi-gatik kalean gelditu diren gazteak dira, baliabiderik ez dutenak, eta Kolore Guztiak-en prestakuntza eta etxebizitza eskaintzen diegu. Hori bai, etxebizitza baten sartzeko baldintza batzuk bete behar dituzte, eta horietako bat da ikasten egotea. Etxe bakoitzeko bi hezitzaile dauzkagu, gazteen jarraipena egiteko.

◆ Zein da zehazki zuen, tutoreon, lana?

Gu ez gara berez tutore, gazte hauek adinez nagusiak direlako. Nolabait esateko orientatzaileak gara gu, pertsona erreferentziarioak haien hezkuntza prozesuan. Dokumentazioa tramitatzen laguntzen diegu, ikastaroetara zuzentzen ditugu eta haien egunerokoaren eta hasi duten hezkuntza prozesuaren jarraipena egiten dugu: etxeko ardurak eta arauak betetzen dituzten ikusi, eskolara joaten diren eta eginbeharrekoak egiten dituzten zaindu... Saiatzen gara dituzten aukerez informatzen eta lana to-

patu arteko bidean laguntzen. Gertatzen dena da egoera ekonomikoa asko eskatu dela hemen ere, eta horrek denoi eragiten digula, baita hauei ere. Lehen, egiten zituzten praktikak enpresetan eta ugabazak bazuen haiek ezagutzeko aukera, asko jende jatorra eta langileak direla ikusteko bidea, eta lanerako hartzen zituen. Orain, baina, zailagoa dago. Lan-karga egon denetan ere gertatu izan da ugabazak aldi baterako kontratatatu nahi izatea, baina legez ezin izatea, lanerako baimendun bizileku-txartela izateko aurrez urtebetez lan egina egotea eskatzen dietelako.

◆ Hirugarren urtez jai bat antolatu duzue Mendaron. Zein helbururekin?

Elkartearen egitekoa bistaratzeko eta gurekin dauzkagun gazteak aurkezteko. Gazte hauen inguruan aurreiritzi asko dauzkagu, asko okerrak. Jende ona dira gehienak, etorkizun hobetako baten alde lan egin nahi dutenak. Nerabeak dira eta nerabeen kontuak dituzte, baina Mendaroko hauekin esate baterako ez dugu bestelako arazorik izan. Mendaron, bost lagunentzako lekua daukagu, nahiz gaur egun lau bakarrik egon, eta denak ari dira ikasten. Gaurko jaietan, baina, Mendarokoez gain, elkarte honetako gainerakoek ere parte hartuko dute. Tailer ezberdinak eta jolasak prestatu ditugu umeentzat. Hirugarrenez antolatu dugu jaiak, eta orain arteko erantzuna ikusita, ilusioz gaude. Estreinako aldiari igarri genuen halako errezelo antzeko bat Udalera jo genuenean, eta normala da, Mendaro herri txikia delako eta ez dagoelako ohituta halakoetara, baina herritarren erantzuna oso ona izan zen. Gaur ere haien zain egongo gara.



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA.
ERREMINTA MAKINA, BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.


ESSER Industrialea SE-5 • 20960 Mendara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 656 / 639 710 183 • Fax: 943 742 346
www.santosypatxi.com • comercial@santosypatxi.com

TELLABIDE ITURGINTZA

Ondo pasa jaietan!

Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak

Mendaron zein
Elgoibarren
amaten dugu
zerbitzua



Azpilgoeta 7 behea - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

m mendaro
ikastola

Kilimon, 2
Tel.: 943 756 141



MENDARO
IKASTOLAKO
TXOKOLOREN
PARTEZ ONDO
PASA JAİETAN!

LANDA
ERRETELIA

943 756 028

Caraguetas, 32 - MENDARO

Ondo pasa
santandetan!



XUMUXUA
JATETXEAK



Eguneko menuak
16€

Bezperako eta
gauetako menuak
25€

943 756 166
Mendarozabala z/g, Mendara



TAXI

**Kontxi Urain
MENDARO**

Mobila:
607 575 728

EGUNEKO ZENTROA
ZUREKIN, S.L.



Maria Luisa Fernandez
Nuria Ansuategi
Fidel Ambrona

Azpilgoeta, 32
20850 Mendara

Tel.: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net

EGURRA ETA KITTO.....

Uztailak 25, Santio Eguna

Herriko Enparantzan, 00:30etik aurrera.

2008ko udan sortu zuten Egurra eta Kitto taldea Azpeitiko hainbat gaztek. Lokal txiki batean entseatzeko ibili eta hilabete batzuetan lokalean kantuak sortzen aritu ondoren, 2008ko abenduan eman zuten lehen kontzertua. Euskaraz abesten dute. 2010eko martxoan Urola-Kostako presoan aldeko martxarako *Pausoz pauso* abestia eta beste sei kantu grabatu zituzten Ondarroako Records estudioan eta *Argituko du* izeneko diska kaleratu zuten. Orduetik makina bat kontzertu eman dituzte eta beste hiru diska ere kaleratu dituzte: *Lurrikara*, *Zuentzat!* eta *Gure ordua*. Sei lagun dira.

GOZATEGI.....

Uztailak 26, Santa Eguna

Herriko Enparantzan. 23:30ean



1992an jaio zen Gozategi eta gutxi izango dira ezagutzen ez dutenak. Trikitia pop eta rock taldeen formatura egokitu zen 90eko hamarkadan, eta horrek izandako arrakastaren erantzuleetako bat Gozategi taldea izan zen. Asier eta Ainhoa Gozategi anai-arreba oriotarrek eta Iñigo Goikoetxea altsasuarrak osatu zuten taldea, 1991. urtean, eta *Nor-nori-nork* kantuarekin egin zen ezagun. Musika freskoa, bizia eta adin guztietako entzuleen gustukoa eskaini zuten. Arrakastarik handiena *Nirekin* kantuarekin lortu zuten. Dozena bat diska inguru dituzte eta hogeituro urteko ibilbidearen erreposoa egin zuen taldeak All Stars 1992-2012 diskoan.

VENDETTA.....

Uztailak 25, Santio Eguna

Herriko Enparantzan.



2009an Nafarroa Garaian sortu zuten taldea da Vendetta, eta ska eta punk doinuak jotzen ditu. Pello Reparaz (tronboia eta ahotsa), Ruben Anton (tronpeta eta koroak), Javier Etxeberria (gitarra eta ahotsa), Luisillo Kalandraka (baxua eta ahotsa) eta Enriko Rubiños (bateria eta perkusioa) osatzen dute taldea eta bost disko dituzte kalean: *Vendetta* (2009), *Puro Infierno* (2011), *Atzo, gaur eta bihar* (2012), *13 Balas* (2014), eta *Bother* (2016). Aurten agertokiei agur esan behar dietela iragarri du. Beraz Mendarokoa aukera ona izango da Vendetta entzuteko, Sakanako talde honek hamar urteko ibilbideari agur esan aurretik.

OXABI

Uztailak 27, Umeen Eguna

Herriko Enparantzan, 23:00etan.

2006an sortu zuten Oxabi erronomia taldea Jon Eguskitza, Aritz Uriartek eta Jon Gomezek, baina hamabi urteren ondoren, gaur zazpi lagunek osatzen dute taldea, hasierako Jon Eguskitza (trikitia) eta Jon Gomez (ahotsa) honako beste hauek batu zaizkielako: Mikel Urrutia (baterian), Markel Arevalo (baxua), John Legarreta (gitarra), Adrian Lopez (tronpeta), eta Eneko Arraibi (saxoa). Mendaro dantzan jartzera datoz.

e19 electricidad
PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
perosanz@euskalnet.net

Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 288
Faxa: 943 206 045
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
Faxa: 943 031 718
20850 MENDARO

Plater konbinatuak
Razioak
Bokatak

AITZ BELTZ
Mendarozabal, 13 - 943 756 057

Ondo pasa Santanetan!

BOCABEATS KOMEDIA SAIOA.....**Uztailak 28, Kuadrillen Eguna.****Herriko Enparantzan, 17:00etan.**

Euskal abesti eta letrak, rap eta reggae erritmoekin modu komikoan nahastuta sortutako ikuskizuna da. Ivan Perezek eta Aitor Vidauterrak osatzen dute biko talde hau eta telebistatik ezagutuko dituzue, beharbada, saio propioa izan zutelako ETB2n.

MOTXAILA BAND.....**Uztailak 28, Kuadrillen Eguna. 20:00etan.**

Mendaroko sei lagunek osatzen dute taldea: Aitor Basurto (baxua), Andoni Ulazia (bateria), Ekhi Unanue (gitarra), Mikel Teillac (gitarra), Ibai Idoeta (ahotsa) eta Xeber Loiola (saxofoia). Hamar urte dira taldea sortu zutenetik, eta geroztik, makina bat plaza egin dituzte.

ENERGY ORKESTRA.....**Uztailak 28, Kuadrillen Eguna.****Herriko Enparantzan, 23:30ean.**

Zaragozatik datoz, eta orkestra handia dira. 11 lagunek osatzen dute taldea, eta lau abeslari dituzte. 20.000 watiotako soinu eta 80.000 watio argi. 60ko hamarkadatik gaur arteko kantu ezagunenak jotzen dituzte.

ALGARA.....**Uztailak 29, Adinekoen Eguna.****Frontoian, 17:30ean.**

Beste dantza taldeetatik zetozen hamabost bat lagunek sortu zuten Algara taldea 2.000. urtean, Gasteizen. Gaur egun, baina, 150 dantzari inguru dira, eta horiei txistulariak, gaiteroak eta trikitilari bat batu behar zaizkie. Arabako folkloreaken talde erreferentziazkoa da egun, eta Euskal Herrian ez ezik atzerriera ere joan izan dira Euskal Herriko dantza eta musika tradizionala zabaltzera.

LEHIAN.....**Uztailak 29, Adinekoen Eguna.****Herriko Enparantzan, 19:30ak aldera.**

Billbotarrak dira eta euskal rock kanten bertsiok egiten dituzte. Sei lagunek osatzen dute taldea. Doinu dantzagarriekin datoz Mendarora, adin guzietako jendea asetzeko moduko kantutegiarekin.

KATASORGIÑAREN KANTUA

*Katu ta sorgin, sorgin ta katu
leihopean egunero,
etxekoandrea izaten zun
beldurtuta eta ero,
gizona goruetan
ordezkoan lanetan
mozorroz jantzi zen gero,
elkar ikusten geratu ziren
biek ez zuten espero.*

*Badator, badator gure katasorgiña
urtero lez badator,
gavaren iluntzean, artadien artean
urtero lez badator.*

*Katuak galdera egin zuen:
gizona goruetan?
ta gizonak erantzun zuen:
katua ta berbetan?
bota zion makila
danbateko isila
zauritu zuen hanketan,
oihu zorrotz bat Mendaro osoan
zabaldtu zen gau haretan.*

Badator, badator gure katasorgiña...

*Hurrengo egunez amonaxo bat
ikusi zuten errenka,
ta negarrez zihoan mantso
gure Kilimoi erreka,
katuak bihotz ona
eta barrez gizona
majikoari iseka,
hilabeteko katarroakin
gero etzen egon barrezka.*

Badator, badator gure katasorgiña... (bis)

**IRIONDO**www.iriondo.com

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

Jose Mari Berasaluze

Nagusien danborradako danbor-jole beteranoena da Jose Mari Berasaluze [Mendaro, 1937], 81 urterekin. Ez du oroitzen noiz jantzi zituena aurrenekoz danborradako arropak, baina 1985etik behin bakarrik huts egin du, anaia Agustin hil zitzaion urtean, 2007an. Gertakari hura gogoratzearekin batera goibeldu zaio aurpegia, baina une batez isildu ostean, bildu du berriro indarra. "Ahal dudan artean jarraitu nahiko nuke danborradan parte hartzen", dio.

- AINARA ARGOITIA -

"Gauza bera esango nieke denei: hasteko preparatzen datorren urterako, hau ez dadin sekula galdu"

◆ Nik neuk beti ezagutu zaitut danborradan, baina noiz izan zenuen lehenengo aldia?

Seguru ezin dizut esan, baina asko. 1985etik gaur arte behin bakarrik falta izan naiz. Aintzina Azpilgoetan egiten zen danborrada, hangoek antolatuta. Ni Garagartzakoa naiz eta beti izaten genuen halako pike moduko bat bi auzoen artean, baina, urte batean, danborradarako taldea osatu ezinda edo ibiliko ziren azpilgoetarrak eta geuri ere iritsi zitzaigun parte hartzeko abisua, Guruzpe elkartearen bidez-edo. Gure aldean zaharrak ibili ziren ordura arte danborradan, sukaldari jantzita, baina edadean aurrera joango ziren asko eta beste batzuk hil edo, eta jende faltagatik bertan behera gelditu aurretik apuntatu ginen geu ere. Gu hasi arte, Azpilgoetan bertan ibiltzen ziren kalean gora eta behera danborradakoak, baina Garagartzakoak batu ginenean hasi ginen herri osoan jotzen.

◆ Napoleon jantzita ikusi zaitut nik beti. Danborra jo duzu beti?

Bai, beti. Lehenengoetan gaizki ibiltzen ginen arrokekin-eta. Donostiatik-edo ekartzen zituzten bezperan, entsegua egiteko ordurako. Garbitu eta haretzek jantzen genituen gero Santio Egunez. Orain, bertan ditugu arropak, eta izatekotan beste bat da orain arazoa: haietan kabitu behar dela urtetik urtera.

◆ Danborradako kiderik beteranoena izango zara aurten, zure adin bueltako azkenak iazkoa izan zuelako agurrekoa.

Martxoan, 81. urtea bete nuenean, neuk ere esan nion neure buruari: "No, oraintxe zahartu haiz ba!". 80 urte egin



arte tira, eta 80rekin ere, bale, baina 81ekin... Baina, segi nahiko nuke, gorputzak bale esan arte. Neu izango naiz aurreten zaharrena, eta zer pentsatua ere ematen dit batzuetan, baina gustatu egiten zait eta... Hiru izan gara oraintsu arte gu, hiru mosketeroak. Josetok [Jose Mari Zabalak] laga zuen iaz, baina, eta Txomin Longartek, lehenengo ilara osatzen genuen beteranoenen taldeko hirugarrenak, duela lau-bost bat urte joko zuen azkenekoz. Urte askoan ibili gara hirurok aurrean. Txominek laga zuenean-edo emakume bat ekarri genuen gure ondora, lehenengo ilarara. Emakume bakarra geneukan danborjoleetan, Nagore Iriondo Lasaldekoa, eta pentsatu genuen aurrean egotea merezi zuela.

Zuretzat zer da danborrada?

Ez dakit ba nik, baina berezia bada behintzat. Zain-zain egoten naiz ni. Entseguetan-eta hasita gaude, eta gustura joaten naiz,, piezak ondo ezagutu arren. Eguna bera ere oso polita izaten da. Elkarrekin afaltzen dugu lehenengo, azkeneko urteetan Luzaiden, eta gero jantzi, eta dale!. Adinak ez du barkatzen eta torpetuta ere banago, baina ahal dudan artean segi nahi dut, saltaka ibili beharrik ere ez da izaten hemen-eta. Hori bai, dantzarako sekula

ez naiz izan abila eta lagunak dantzan hasten zaizkidanean ibiltzen naiz estu. Etxekoek ere esaten didate mugitzeko pixkat, baina ez dut balio. Zer egingo diogu ba! Ahalegina egiten dut, baina gehiago ez eskatu niri! Azkeneko 33 urtean behin bakarrik huts egin dut nik danborradan, anaia hil zenean. [2007an hil zen Agustin Berasaluze Piriniotan, eta Santa Ana bezperan, Santiago egunez, egin zuten haren aldeko hileta Mendaron. Jose Mariren alaba Irune lehenengoz alkate izendatu zuten urtean izan zen].

Piezarik estimatuena zein duzu?

Mendaroko Martxa beharbada. Denak ditut gustuko, baina gainerako piezak beste herri askotan ere jotzen dituzte, eta Mendarokoa, bertan bakarrik. Taberna pareetan-eta jotzen dugu, eta momenturik espezialenak horretxek izaten dira, hortxe batzen delako jende gehiena. Lehen, ibilbide osoan egoten zen jendea eta etxean zeudenak ere irteten ziren leihora danborrada ikustera, baina orain ez dago halakorik. Pobretu da horretan, bai. Ibilbideko zatirik gehienean ez da inor egoten begira, eta banaka batzuk etortzen dira gure atzetik, baina oso jende gutxi. Irteerakoa, Landa pareko geldialdia eta Aizpe aurrekoa gustatzen zaizkit niri eta baita frontoira sartzeko unea ere. Frontoian hazi egiten gara, hango panorama ikusita. Frontoia jendez beteta egoten da, eta ondo jo beharra egoten da horrenbeste jenderen aurrean. Lehenengo ilaran egoten naiz ni gainera, eta atzekoei ere errespetu pixkat eman beharko diegu ba! Sasoi batetik hona asko aldatu da horretan danborrada, eta lehengo aldean, katxondeo handia egoten da orain batzuetan, gehiegixoa ere bai nire gusturako, baina ni ahalegintzen naiz serio eta zuzen jotzen, iruditzen zaidalako danborradan behar dela seriotasun apur bat ere. Donostiako danborrada izango da hemen bueltan ezagunena eta izen handienekoa, eta han, serio jotzen du jendeak.

Danborradaz aparte, zer nabarmenduko zenuke jaietako egitarautik?

Santa Ana eguna. Egun hori beti izan da berezia Garagartzan jaiotako eta hazitakoontzat, gure patroia Santa Ana izan delako beti. Gazteago ginenean, zezenak izaten ziren goizean goiz, baina azkeneko zezena ateratzeaz bat erretiratzen ginen etxera, arropak aldatu eta prozesioan Santa Anara joateko. Meza ostean, han bertan egoteko ere giro izaten bazen ere, aurreku-soka egiten zuten dantzari batzuek eta karriatzen gintuzten denok Garagartzako plazara. Orain ere, hutsik egin gabe joaten naiz ni Santa Anara. Jubilatuen Eguna ere badago egitarauan, eta berez horixe izango da guretzat sortutako eguna, baina Santa Ana Eguna bestekorik ez dago. Hori bai, joan deneko hiru-lau urtean izan naiz neu ere bazkaltzen Aizpen, eta oso ondo han ere.

Horrenbeste urtean danbor jotzen ibilita ez al duzu sekula danbor nagusi izaterik pentsatu?

Ez, ez. Sekula ez dut nik halako intentziorik izan. Nahiago dut nik beste batzuen babesean ibili. Zuzendari izateko balio egin behar da gero! Eta jakin ere bai, guk dakiguna baino gehiago.

Ze etorkizun ikusten diozu danborradari?

Eutsiko diogula uste dut nik. Izan ziren urte batzuk jende gu-

txiagokoak eta danborradarik egon ez zirenak, baina 1985etik hona beti egon da jendea eta atzetik ere badatoz jotzeko prest daudenak. Etxean ere badauzkat nik joango lirakeenak, baina oraindik gaztetxoegiak direnak. Umeak etorri badatoz, gu baino dezentez abilagoak gainera, baina pena pixkat ematen dit sasoi jende gehiago ez egoteak nagusien danborradan. Zaharrak geu gara nahikoa, baina gu baino hogeitaz urte gazteagoak ere makina bat daude danborradan jotzeko sasoiaren eta animatu nahiko nituzke.

Danborrada nola bizi duzun ikusita, zeu izango zara ba beharbada egokiena horiek animatzeko, ala?

Ez dut uste. Gogorik balute, etorriko lirakeke nik ezer esan gabe ere. Nik denei gauza bera esango nieke, gazte zein nagusiei: hasteko datorren urterako preparatzen, Mendaron danborrada sekula galdu ez dadin.

Joaten al zara kanpora beste danborrada batzuk ikustera?

Ez. Behin izan ginen Azpeitin jotzen, hori bai. Bandako kide-
ren bati omenaldia egin zioten eta haiek eskatuta Mendarotik ere joan ginen bost-sei lagun, neu bat. Baina, gainerakoan, hemen bakarrik jotzen dut nik.



1985. urtekoa, danborrada berreskuratutako zutenekoa.



11 egun euskaraz ekimenaren hamaikakoa aurkeztu dute Mendaron

Mendarok ere bat egin du gure hizkuntza ohiturak aldatzea proposatzen digun Euskaraldia ariketarekin eta jaietarako pankarta ere eskegiko dute udaletxeko balkoian, herritarrak parte hartzera animatzeko. Talde eragilea ere osatu dute herriko hainbat euskaltzalek, eta astelehenean aurkeztu zuten ekimen honen Mendaroko hamaikakoa, ariketa honen enbaxadore izango diren taldea.

Ez neurritz, ez izaeraz, ez soziolinguistikoki... ez dute antz handirik Debabarrenako herriek, baina Euskal Herri osoan martxan den praktika bera erabiliko dute eguneroko hizkuntza ohiturei astindua eman eta euskararen erabilerari bultzada emateko: ahobiziak eta belarriprestak aktibatu, prestatu eta hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, aproba egin. Hala, ahobiziek euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute (lanean, etxean, lagun artean...), baita ezezagunekin ere, lehen hitza gutxienez. Belarriprestek, aldiz, dakiten guztiei euskaraz egiteko gonbitea egingo diete, beraien euskaraz egiteko eskatuko diete, nahiz eta eurek, belarriprestek euskaraz edota erdaraz erantzun.

Euskaraz ulertzeko gai diren 16 urtez gorakoentzako ariketa da Euskaraldiak proposatzen duena eta izena eman behar da. Izena ematen dutenek eurek aukeratuko dute nola parte hartuko duten eta zein txapa eramango duten paparrean, ahobizien edo belarriprestena, eta Mendaron ere euskaraz bitzeko aukera handia dagoela bistarazi eta sentiitzeko aukera eskainiko dute. Izan ere, 2016ko datuen arabera, hamar mendarotarrek zazpik dakite euskaraz, baina erabili %39,80k baino ez dute erabiltzen. 64 urtez gorakoak dira herrian euskaraz gehien egiten dutenak (%48) eta ondoren, umeak, 2 eta

4 urte artekoak (%44,10). Gutxien, berriz, gazteek egiten dute, iazko kale neurketa honen arabera: %9,80. Datuak kezka garririk dira, bistan da, eta zer esanik ez datu horiek ezkututzen duten hizkuntza erabileraren joera: Izan ere, euskara lehen hizkuntzatzat dutenen kopurua etengabe ari da apaltzen Mendaron. 1991. urtean biztanleen %64,3 ziren, eta gaur egun, berriz, %39,35.

Mendaroko 'hamaikakoa'

Eta datu horiei buelta eman nahi die Euskaraldiak. Mendaroko Udalarekin batera, herriko hainbat euskaltzale batu dira Euskaraldia sustatzeko talde eragilerara, eta talde horrek izendatu du herriko hamaikakoa ere, astelehenean aurkeztu zutena. Adin, jatorri eta pentsaera ezberdineko hamaika lagunek osatzen dute taldea, baina badute ezaguri bat amankomunean: Mendaro euskaldunagoa egiteko gogoia. Honako hauek dira enbaxadore lanak egingo dituztenak, herritarrak Euskaraldian parte hartzera animatuko dituztenak: Lorea Cabello, Irati Mendikute, Gotzon Zulaika, Badr El Boughdadi, Saioa Andonegi, Javi Muñoz, Ana Aranda, Sonia Garcia, Jose Mari Riaño, Leonor Barreras eta Juanjo Rey.



*Mendaroko Udalak
santana zoriontsuak opa dizkizue.*

AUTOZERBITZUA

ELKAR
COVIRAN



Kilimon Hiribidea, 5 behea - 20850 MENDARO
Tel.: 943 530 072 - Faxa: 943 530 073



Ondo pasa jaietan!
morroskillo

Tel.: 943 033 631 - Faxa: 943 755 235
E-posta: morroskillo@denda@hotmail.com
Herriko Enparantza, 18 - 20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**Liburuak
Loteria
Tabakoak
Opariak
...**

**Mendaroko
Haurreskola**

**Garagartza, 5
943 755 219**



Ondo pasa jaietan!



Marea Urdina itsas zeharkaldiaren jarraipen ontziko patroilanak egin ditu Roberto Andonegi elgoibartarrak

Autismoa duten pertsonen inguruan sentsibilizatzeko asmoz asteburuan egin duten itsas zeharkaldian parte hartu du Roberto Andonegi elgoibartarrak (Eibar, 1955). Gipuzkoako kostalde osoa zeharkatu du Marea Urdinak, 64 kilometro, hasi Saturraranen (Mutriku) eta Hondarribira artekoa, eta igerilariei jarraika joan den ontzia gidatu du Andonegik. Bizitako esperientzia oso aberasgarria izan dela aitortu du eta une hunkigarri asko bizi izan dituztela.

Autismoaren mundua gertutik bizi duten lau igerilariaren ekimena izan da Marea Urdina, baina ekimen xume moduan abiatu zenak sekulako oihartzuna hartu du eta azkenerako ehunka lagunek parte hartu dute, batera zein bestera. 70 bat igerilarik egin dute erreleboka zeharkaldi osoa [hamabost lortzeko erronka jarri zuten], baina ikusita parte hartu nahi zutenak gehiago zirela, zeharkaldi herrikoiak ere antolatu zituzten antolatzaileek, Deban, Zumaiari, Zarautzen eta Donostiako badian egiteko, eta guztira 500 bat igerilarik parte hartu dute horietan. Baina zenbaki handiagoak mugitu ditu Marea Urdinak. Izan ere, igerilarien taldeari ekimena diruz lagundu duten guztiak eta Marea Urdina zabaltzen jardun diren beste dozenaka eta dozenaka lagun batu behar zaizkie. Horietako bat izan da Roberto Andonegi.

Itsas zeharkaldia jarraitu duen ontziko patroia izan da Andonegi, antolatzaileak,



Ezkerretik hasita laugarrena da Roberto Andonegi.

epaileak, medikua eta erizaina eraman dituen. Itsasotik bueltan hunkituta hitz egin du bizitakoaz. "Oso esperientzia polita izan da, hunkitu ere egin gara momentu askotan, eta oso lagun talde ona osatu dugu", esan du. Yateko kapitain eta kabotajeko patroil nagusia da, Karraspio Itsas Turismoa ontziko ugabaza. Itsas irteerak antolatzen ditu Karraspio Itsas Turismoak, baleak eta izurdeak ikustera, arrantzakoak, nahiz eskaera berezietara egokitutakoak, eta enkarguz jardun da Marea Urdina egitasmoarentzat. Autismoaren gaia, hala ere, gertutik bizi du. Arreba bat du autismoarekin eta ezagun baten alaba batek ere badu, baina esperientzia honek are gehiago sentsibilizatzeko balio izan diola nabarmendu du. Autismoa dutenak gainerakook bezain pertsona izan arren, gure aukeren erdia ere ez dutela bistaratu nahi izan dute ekimen honen bultzatzaileek eta inklusioaren aldeko pausoak eman beharraz ohartarazi. Bat egin du es-

kaerarekin Andonegik ere. Aipatu du bi egun zoragarri izan direla, nahiz momentu gogorak ere izan dituzten, itsasoan ordu asko egin dituztelako eta tarte askotan geldirik. Unerik politenak igerilarietara elkarri erreleboak emateko momentuak izan direla aipatu du, eta baita kostaldeko herrietan egin dizkieten harrera beroak ere, bereziki Oriokoa eta Hondarribikoa.

Aritz Orbegozo izan da ontzian Robertorekin joan den antolatzaileetako bat. Orbegozok 10 urteko semea du autismoa eta esker oneko hitzak izan ditu ekimen honetan parte hartu duten guztiarentzat: "Aurreikuspen onenak ere aise gauditu ditugu. Ekimen honekin zarata pixkat atera nahi genuen, gizartea autismoaren inguruan sentsibilizatu, baina bi egun hauetan egin nahi genuena lortu geneukan askoz aurretik, aurkeztu ginenetik sekulako babesak jaso dugulako eta guk uste baino dezentez oihartzun handiagoa hartu duelako honek".



II. URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57urte zituela.

**Erraza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa ordea zu ahaztea.
Beti izango zara gure bihotzetan.**

Etxekoak



Familiak Aljerian ustez bahitutako neska baten egoera salatu du Pablo Garrido elgoibartarrak



Ustez bere gogoaren kontra ezkontzeko Aljerian familiak bahituta daukan Ljadra Said Hannuha 19 urteko gaztearen egoera salatu zuten joan zen zapatuan Eibarren. Pablo Garrido elgoibartarraren laguna da neska eta berak jarri du salaketa Ertzaintzan. Garridok ekainaren 9an egindako salaketaren arabera, Deban bizi zen Ljadra Said Hannuha eta amarekin eta ahizpa batekin batera Aljeriara, El Aaium kanpamentura, joan zen oporretan 2017ko azaroan, ustez hilabeterako. Haren berri ez zuenez, larritu zen Garrido eta kontaktatua lortu zuenean jakin zuen familia-koek Espainiako pasaporte eta sakelako telefonoa kendu zizkiotela eta etxean, gela batean giltzaperatuta, zeukatela. Orain dela bi hilabete hartueman erabat eten zen eta lagun baten bidez bere egoera larriaren berri jaso zuen Garridok, eta Ljadrak berak hala eskatuta, kasua Ertzaintzan salatu zuen. Ikerketak irekita jarraitzen du, eta Ertzaintzak eman dio kasuaren berri Espainiako Polizia Nazionalari. Aljeriatik bueltan Eibarren bizi den gaztearen amarekin eta Berrizen bizi den aitarekin berba egin badute ere, ezin izan dute jakin Ljadra Said Aljerian bere borontatez dagoen ala ez. Enbaxadaren bitartez, Aljeriako poliziarekin jarri dira harremanetan, baina Espainiak eskumenik ez eta Interpolekin jarri dira harremanetan. Pablo Garrido kasu honen berri ematen ari da hainbat bazterretan eta Elgoibarren ere jarri ditu kartelak.

Urrirako Segoviara bidaia antolatu dute erretiratuentzat

Erretiratuen elkarteak Segoviara bidaia antolatu du urrirako. Segovia, La Granja, Avila eta Toledo bisitatuko dituzte eta bidaia osoan barrena gidari bat izateaz gain, leku bakoitzeko beste bat izango dute, tokian tokiko azalpenak emateko. Urriaren 21etik 26ra izango da bidaia eta 410 euro ordaindu beharko dira egun osoko mantenuagatik. Izena emateko epea uztailearen 16an zabalduko da, eta astelehen eta ostiraletan eman ahalko da, 11:00etatik 12:00etara, Jubilatuen elkartearen bitartez. Bestalde, uztailearen 20an erretiratuek irteera egingo dute Hondarribiara.

Euskaraldiaren kamisetak salgai Txiki Egunerako

Elgoibarko Euskaraldia Taldeak Txiki egunerako kamisetak prestatu ditu. *Egingo al dogu?* da kamiseten leloa, elgoibartarren artean euskaraz egiteko gonbitea. Kamisetak 16 urtetik gorakoentzat izango dira eta hiru modelo prestatu dituzte, 10 eurotan saltzeko. Uztailearen 17a da eskaria egiteko azken eguna. 943 744 112 telefono zenbakira deitu edo elgoibar@euskaraldia.eus e-postara idatzi behar da eskaerak egiteko.

Idotorbeko jaietako bigarren saritua

Idotorbe auzoko jaietan bi sari zozketatu zituzten eta bigarrenaren irabazlea ere azaldu da. Ignacio Arrizabalagak jaso du Zumaiako Zelai talasoterapiaren bi lagunentzako sesioa eta bazkaria. Bestalde, auzoan, Santumotz egunez [abuztuak 6], egingo den bertso bazkarirako izena emateko epea ere zabalik dago. San Pedro jatetxean egingo da, eta Amets Arzallus eta Maialen Arzallus ariko dira kantuan. 943 740 010 zenbakira deitu izena emateko.

Kameratoian izena emateko epea zabalik

Euskaltzaleen Topaguneak eta Euskal Zine Bilerak Kameratoia, Euskal Herriko Ikus-entzunezko Rallia, egingo dute urriaren 6tik eta 7ra bitartean, gazteei euskarazko zinemaldian espazio propioa emateko. Aurtengoa 24 ordukoa izango da eta Lekeition lo egiteko aukera eskainiko zaie partaideei. Plazak mugatuak izango dira eta irailaren hasieran irekiko da izen-emateko epea, baina bien bitartean interesatuek www.kameratoia.eus eta www.zinebilera.com webguneetan jaso ahal izango dute informazioa.

Dantzak nazioartetik Maalara

Siberia, Kenya eta Elgoibar. Ongoki, African Tumbas eta Haritz Dantza taldea. Hirurek bat egingo dute uztailearen 20an, ostiralean, Maalako parkean, 22:30ean dantza ikuskizuna eskaintzeko. Urteroko ohiturari eutsiz aurten ere Nazioarteko Folklore jaialdia izango da, eta herriko dantza taldeak ekitaldirako propio prestatu dituen dantzez gain, beste herrialdeetako dantza ezezagunekin gozatzeko aukera izango dute bertarutzen diren zaleek.

Siberiako Ongokiren kolorea eta orkestra dantza trebeziari lagunduz

Altaiko Errepublikako lehen dantza talde profesionala izan zen Ogonki. Taldearen dantza bakoitzak istoriotxo bat kontatzen du. Erritualak, umorea eta ikusleak harrিতa uzteko gaitasunak eta trebeziak islatzen dituzte. Beraien herrialdeko jantzi tradizionalen estiloa aintzat hartuta kolore askotariko arropak erabiltzen dituzte. Orkestrak garrantzia handia du taldean, eta herri melodiak dira beren doinu esanguratsuak.



Berastegiko dantzak eta Zuberoako maskarada etxekeoen eskutik

Haritz Dantza Taldeak Berastegiko eta Zuberoako maskaradetako dantzak prestatu ditu jaialdirako. Berastegikoek brokel-dantzaren egitura eta mugimendu bereziak dituzte: ostiko azkarrak, besoekin mugimendu indartsuak, saltoekin gerria berezi mugitzeko modua... Gainera, kapitainak lan berezia egiten du gainontzeko hamabi dantzariak gidatuz.

Zuberoako inauterietara jauzi eginez, maskaradetako dantzak taularatuko dituzte elgoibartarrek. Aitzindariak ez ezik gainontzeko dantzariak ere beren trebeziak eta abileziak erakutsiko dituzte maskaradetako hainbat zati, ofizio, koreografia eta jauzi eginez.



Afrikako historia kenyarren salto eta limurtze jolasetan

African Tumbas talde nairobitarraren dantzek folklore afrikarreko historia erakusten dute: jaiotzak, ezkontzak, igarotze-errituak, uztak, gerrak, jaialdi erlijiosoak, heriotza... Horiek guztiak ehiztarien istorioetan oinarrituak daude, baina Kenyako bizimoduaren alderdi guztietan topa daitezke oraindik praktika hauek. Askotariko mugimenduen bitartez egiten dituzte dantzak saltoetatik hasi eta emakume eta gizonen arteko limurtze jolasak irudikatzeraino.



'Euskara ala ezkara' zikloa antolatu dute urriaren 6rako, kulturgintzari eskainitako egun osoko jardunaldia

Modu berezian ospatuko da Gotzon Garate zenaren oroimenez urtero antolatzen den *Euskara ala ezkara* zikloaren 10. urteurrena. Kulturgintza izango da gai nagusia. Elgoibarrera etorriko diren 21 kulturgile gonbidatuak lotuta dituzte, eta egun osoko programa prestatzen ari dira orain Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea eta Elgoibarko Udala, Danobatgroupeen diru-laguntzaz.


Jardunaldia urriaren 6an, larunbata, izango da. IMHn hasiko da [Antolatzaileen zerbitzura laga du eraikina ikastetxeak, 9:30ean, eta Kultur Etxeko sotoan amaituko da 19:30ean, eta tarte horretan, hainbat jardura egingo dira.

Itziar Ugarte, Peru Iparragirre, Paul Beitia, Edurne Azkarate, Oier Guillan, Ander Lipus, Gotzon Barandiaran, Gorka Arrese, Malen Amenabar, Mariñe Arbeo, Odei Barroso, Ines Osinaga, Mursego, Danele Sarriguarte, Ane Labaka, Nerea Ibarzabal, Harkaitz Cano, Lorea Agirre, Amorante, Uxue Alberdi eta Aitor Novak hartuko dute parte. Edukiei dagokienez, hitzaldiak, diagnosiak, gogoetak, elkarrizketak, poesia musika-tuak edo musika emanaldiak izango dira besteak beste.

Izena Elgoibarko Izarran eman behar da, eta epea zabalik dago. Matrikula 30 eurokoa da, pintxo-bazkaria barne. Informazioa jaso eta izena emateko: www.elgoibarkoizarra.eus webgunea, elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus e-posta edo 943 74 16 26 (Imanol) telefono zenbakia.

San Fermin jaien doinuak Elgoibarko eta Mendaroko kaleetan

Iruñeko sanferminetako txupinazoarekin bat eginez, San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten joan zen ostiralean Elgoibarko eta Mendaroko udako aisialdi eskaintzan parte hartzen ari diren umeek. Elgoibarren, beste urteetako entzierroa ordezkatzuz, peñen igoera egin zuten ehunka umeek, pankarta eta oiha-lekin. Maalatik Kalegoen plazara arteko bidea egin zuten, erraldi eta buruhandiek lagunduta. Plazan txupina bota zuten gero udaletxeko balkoitik. Mendaron bertsoak abestu eta pregoia irakurri zuten umeek udaletxeko balkoitik, eta ondoren, entzierroa egin zuten gero frontoian.



I. URTEURRENA

Luis Oñederra Irureta

2017ko uztailaren 17an hil zen, 86 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, uztailaren 21ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***



Kirola eta aisia uztartuta, aste ederra pasatu dute Sanloko infantilek Eslovenian



Esloveniako Koper herrian jokatu den Eurofest nazioarteko eskubaloi txapelketan parte hartu du Sanloko Hotel Txarriduna infantil mutilen taldeak, uztailaren 3tik 8ra bitartean. Hemeretzi herrialdetako 3.000 jokalarri baino gehiagok hartu dute parte txapelketa honetan. Hotel Txarriduna taldeak zazpi partida jokatu ditu guztira Frantzia, Eslovenia, Israel (selekzioa), Kroazia eta Txekiako taldeen aurka, eta 18. postuan sailkatu da bere mailan. Beste herrialde batzuetako taldeen aurka jokatzeko esperientzia aparta eta aberasgarria izan dela azaldu dute Sanlotik. Baina dena ez da kirola izan. Herrialdea piska bat ezagutzeko aukera izan dute eta Izola herria eta Postjnska Jama leize "ikusgarriak" nabarmendu dituzte ikusitakoen artean. "Primeran pasatu dute umeek eta sekula ahaztuko ez duten esperientzia izan da eurentzat", azaldu dute.

Leire Egaña Euskadiko txapeldun, ehiza-ibilbide modalitatean



80 ehiztari lehiatu ziren Zambranako *El Castillo* ehiza barrutian jokatu zen Euskadiko Txapelketan, uztailaren 1ean. Sei orduko lehiaren ostean, Aitor Ezeiza donostiarrak irabazi zuen proba, gizonekoetan; eta, Leire Egaña elgoibartarrak emakumezkoetan. Egañak Euskadiko Ehiza Xehetxe Txapelketa irabazi zuen joan zen urrian eta ehiza-ibilbide modalitateko titulua eskuratu du orain. Ehiza debekualdia dagoenean edo animaliak umealdian daudenean praktikatzen da modalitate hau. Makina automatiko batzuk jartzen dituzte ehiza-ibilbidean [bost Zanbranan], eta horietatik hainbat tamainatako platerak jaurtitzen dituzte. La Union taldeko ordezkari Leire Egañak jaurti zizkieten 100 plateretatik 62 jo zituen. Ederne Sarasola sailkatu zen Egañaren atzetik, 59 plater jota, eta Mainer Cambrak egin zuen hirugarren, 38 plater jota. Egañak Espainiako ehiza-ibilbide txapelketan hartuko di parte, uztailaren 27tik 29ra, Valladoliden.



Bizikleta Festa, bihar


Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak bigarren Bizikleta Festa antolatu du biharko, uztailaren 14rako, bizikleta zaletasuna sustatzeko. Sallobentera bizikleta irteera egingo dute lehenik, 10:30ean, Kalegoen plazatik abiatuta. Adin guztietako txirrinduzaleek parte hartu dezaketela nabarmendu dute antolatzaileek. Sallobentetik itzulitakoan, antolatzaileek prestatutako jolasetan eta ginkanan parte hartu ahal izango dute 6 eta 14 urte bitarteko umeek. 11:30etik 13:00etara izango da Kalegoen Plazan (euria egingo balu, Maalan). Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da, eta ez dago izena eman beharrik.

Sigmako Pilota Txapelketako finalak erabakita

Zapatu honetan, hilaren 14an, jokatuko dira Sigmako Pilota Txapelketako finalak, 11:00etan hasita, Sigmako frontoian. Lehen Mailako finalean, Igor eta Iker Txurruka anaiek Madariagaren eta Felixen aurka jokatu dute. Beteranoen arteko finalean, berriz, Egañak eta Astigarragak Telleriaren eta Berazaren aurka jokatu dute.



Maidier Mantecon, Gipuzkoako txapelkun zaldi jauzian



Gipuzkoako Hipika Federazioak antolatuta, Gipuzkoako zaldi-jauzi txapelketa jokatu zuten Erreteriako Listorreta Hipikan, joan den ekainaren 3an. Oztopoak lurretik dauden altueraren arabera mailetan lehiatu ziren parte hartzaileak, eta 0,5 metroko altuerako kategorian Maidier Mantecon elgoibartarrak eta Xiri zaldiak irabazi zuten txapelketa. Donostiako Loyola Hipika taldeko kidea da 15 urteko elgoibartarra. Hipika txapelketetan hainbat oztopo gainditu behar dira ahalik eta denbora laburrenean. Oztopo bat edo oztopo zati bat botaz gero, puntuak pilatzen dituzte zaldunek, eta zaldiak oztopoaren aurrean atzera egiten badu ere puntuak jasotzen dira. Gipuzkoako Txapelketan bederatzi oztopo gainditu behar zituzten parte hartzaileek eta Manteconek eta Xirik punturik ez lortzeaz gainera, lanak amaitzen azkarrenak izan ziren 0 puntu lortu zituztenen artean.

Andoni Azkarate txirrindulari arrasatearra gailendu zen Javier Ezenarro Oroitzarrean



XI. Javier Ezenarro Oroitzarrean parte hartu zuten junior mailako 108 txirrindulariek bi aldiz Osintxuraino joan eta birritan igo zuten Kalbarioko gaina, 85 kilometroko ibilbidean. Aldapa gora Miguel Arroyo mexikarra izan zen indartsuena. Gaztela eta Leongo Aterpref Junior Team taldeko txirrindularia lasterketa buruan pasatu zen Kalbario mendatera egin zituzten bi igoeretan. Bigarren igoeran gainera, 30 segunduko aldea atera zien ondorengoei. Beherakoan, baina, elkar hartu zuten Andoni Azkaratek (Portabicis.com) eta Xabier Isasak (Bellota-Goierri), eta helmugara iristeko 500 metroren faltan harrapatu zuten Arroyo. Mendaroko kaleetan jokatu zuten esprintean Andoni Azkarate arrasatearra izan zen azkarrena, Isasak eskuratu zuen bigarren postua eta hirugarren egin zuen Arroyok.

Olasok eta Jaujarrek jokatuko dute Txarriduna Cup 7 Futbol Txapelketako finala

Herriko zenbait gaztek Txarriduna Cup7 Futbol Txapelketa antolatu dute estreinakoz, Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek Balairako Futbol 7 Txapelketa ez zutela antolatuko erabaki eta gero. Aritz Iriondo epaile elgoibartarrari eginiko erasoaren ostean bertan behera gelditu zen iaz txapelketa. Aurten berriro antolatzeko asmoa zuten, baina epaileen gaia lotuta. Gipuzkoako Futbol Federazioko arbitroen batzordearekin harremanetan jarri ziren beraiei arbitroak jartzeko eskatzeko. Batzordearekin adostasun batera ez zirenez ailegatu, txapelketa ez antolatzera erabaki zuten. Kirol Patronatutik jakinarazi dutenez, azken momentuan, ekainean, gazte talde hau aurkeztu zen txapelketa antolatzeko asmoarekin. "Horrelako txapelketa bat antolatzek dakartzan arriskuak azaldu genizkien arren, aurrera egitea erabaki zuten". Hala, Mintxetako futbol zelaiaren alokairua kobratzen die Futbol Kirol Patronatuak. Elgoibarko hamabi talde aritu dira lehian eta zapatuan jokatuko dute finala, 12:00etan, Mintxetan. Jaujar eta Olaso taldeak ailegatu dira finalera.

Orbea kiroldegiko igerilekua erabili ahaliko dute abuztuan patronatuko abonatuak

Olaizaga kiroldegia itxita egongo da abuztuan, instalazioen urteko mantentze eta garbiketa lanak egingo baititu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Olaizaga itxita dagoen bitartean, patronatuko abonatuak Eibarko Orbea Kiroldegiko igerilekua erabili ahal izango dute aurten ere. interesatuek NANarekin batera, bazkide-tza egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute. Olaizagako harreraren eskuratu daiteke agiria.

LANA.....

Eskaerak

Adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest. Etxeko langile moduan ere arituko nintzateke.

☎ 631 556 507/620 619 287

Gauetz adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Umeak zaindu edo garbiketa lanak ere egingo nituzke.

☎ 616 457 254

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Gauetz, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 891 709

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. Etxeko langile moduan ere egongo nintzateke.

☎ 631 988 757

Pertsona arduratsua prest adinekoak edo umeak zaintzeko. Etxeko langile moduan ere egongo nintzateke.

☎ 631 624 304/666 197 831

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Gauetz, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak edo tabernetan zerbitzari lanak ere egingo nituzke.

☎ 651 479 142

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta etxeko langile moduan ere arituko nintzateke. Esperientzia daukat.

☎ 642 941 067

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest, garbiketa lanak ere egingo nituzke.

☎ 602 047 812

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest, garbiketa lanak ere egingo nituzke.

☎ 640 742 618

Etxeak margotzeko prest. Fatxada nahiz barruko aldea. Esperientzia handia daukat. ☎ 600 202 516

Eskaintzak

Adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko norbait behar dut.

☎ 616 421 970 (Maria)

Neska euskalduna behar da irailetik aurrera bi ume zaintzeko.

☎ 699 217 721

Uda guztian barrena kafetegian aritzeko zerbitzaria behar da. Asteburuero lana egin beharko luke.

☎ 659 335 532

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza alokagai Conilen udarako.

☎ 699 276 962 (Lola Peces)

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 6€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 5€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.



Octavio Calles Maldonado

2017ko uztailaren 17an hil zen.

Bere bihotz onak eragin zuen ezagutu zuten guztiek estimuan izatea.

Senideak





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkartasuna



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahi nuke zein erantzukizun duen gehiegikeriaz jokatu eta komunitatean kalteak eragiten dituen presidente batek.

Bere jardunean presidentek gehiegikeriarik egin edo komunitateko, jabeen zein hirugarren pertsonen ondasunei kalte egingo balie, erantzukizun zibila eska dakioko batzarrean erantzule izan dadin, hierarkikoki honen mende baitago. Jabeen batzordeak ezarri beharko ditu, legalki jasotakoez gain, presidentek bete beharreko funtzioak.

Presidenteari, zuzenean emandako eskuduntzez gain, baliozko akordio bidezko ordezkaritza baino ez dagokio eta hauen baldintzen arabera, gainera. Beraz, modu propioan zein analogikoan berari dagokio ezartzea berari emandako mandatua lekualdatzeko debekua. Mandatua emandako arauen arabera bete behar da. Hortaz, gehiegikeriaz jokatuz gero, engainuaren arduradun ezezik erruarena ere bada eta mandatua ordaindua izan den ala ez ikusita, auzitegiak erabaki beharko du zehaztasun gehiago edo gutxiagorekin baloratu.

Ondorioa: Kargua kentzeaz gain, komunitatearentzat ekonomikoki benetan kaltegarria izan den zerbait gertatu bada, ordaindu egin beharko du presidentek eta ordainketa hori legalki exijitu ahal izango zaio.

Enpresa kolaboratzailea:  P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Zorionak, **Unax**, datorren ostegunean 4 urte beteko dituzulako. Muxuak familia-koen eta bereziki Heikoren partez.



Aupa **Iratil**! Gaur 7 urte! Patxo handi-handi bat etxekoon partez, ederki ospatuko dugul!



Zorionak, **Naiara**! Abuztuaren 17an 8 urte! Elgoibarko eta Andoaingo senideen partez, muxu pila bat.




Zorionak, **Danel**, astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Patxo asko familia guztiaren partez.




Zorionak, **Maria**, hilaren 20an 11 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.




Zorionak, **Saioa**, gure etxeko punki txikiari! Dagoeneko 7 urte. Muxu pila bat etxeko guztien partetik.



Zorionak, **Uxue** eta **Unai**, gaur 6 urte bete dituzuelako. Oso ondo pasatuko dugu zuen festan. Patxo asko familia-koen partez.



Zorionak, **Mikel**. Hilaren 23an, azkenean 9 urte. Ondo pasa, txapeldun!



Zorionak, **Maddi** eta **Iratil**, zuen urteguna ospatzeko gogoarekin gaude! Patxo handi bana familia-koen partez.



Zorionak, **Luken**, uztailearen 28an 5 urte beteko dituzulako.



Zorionak, uztaileko gure bi altxorrei.



Zorionak, **Axi**. Handia ez, erraldoia zara zu! Ondo pasa zure egunean.



Zorionak, **Mikel**, 8 urte beteko dituzulako! Patxo handi bat etxeko guztien partetik.

ELGOIBAR - DEBA

Uzuri

optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

BEHERAPENAK

%10

%20

%40

%30

%50

Artezteko makinen fabrikaziorako Elgoibarko enpresa batek (Doimak S.A.) proiektuak kudeatzeko pertsona behar du lantalderako

BALDINTZAK:

- Ingenieritza mailako prestakuntza (ingeniaritza teknikoa edo goi mailakoa)
- CNC programazioaren ezagutza (Siemens, Fanuc...)
- Ezinbestea ingelesa ondo menperatzea
- Ezinbestekoa kanpora bidaiatzeko prestutasuna izatea
- Berehala lanean hasteko
- Baloratuko da makina-erreminta sektorean eskarmentua izatea
- Interesatuak bidali curriculumak: webmaster@doimak.es

13 BARIXAKUA

11:00 Ehunmilak ultratrail lasterketari ongietorria. Azkaraten.

Antolatzailea: Elgoibarko Ehunmilak Taldea.

17:30-20:00 Odol ateratzeak Mendaron. Ikastolan.

19 ZAPATUA

10:30 Bizikleta festa. Kalegoen plazatik Sallobentera eta buelta. 11:30-13:00etara ginkana Kalegoen plazan. Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldeak Txirindulari eskola.

11:00 Sigmako pilota txapelketako finalak.

12:00 Txarriduna Cup7 futbol txapelketa.

20:00 Meditazioa eta jardunaldia: Adimen espirituala zaintzea. Dinamizatzailea: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Isiltasun Eskola.

20 BARIXAKUA

18:00-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartearen. Osasun Zentro ondoan. Abuztuaren 17an izango da hurrengo odol ateratzea.

22:30 Elgoibarko Nazioarteko XXXII. Folklore Jaialdia. Kenya, Siberia eta Euskal Herria (Haritz Euskal Dantzari

31 MARTITZENA

19:00 Dantzaldia Eguren orkestrarekin. Maalako parkean.

SARGOATEKO ERROMERIA

Uztailak 29

11:00 Meza.

Ondoren, salda eta txorizoa banatzea.

Segidan, trikitalariak.

SALLOBENTE-ERMUARANGO JAIK

Abuztuak 3, 4, 5, 10

3 BARIXAKUA

19:00 Kanpai jotzea eta suziriak, jaien hasiera iragaritzeko.

Ondoren, errosarioa eta meza. Auzoko hildakoen alde.

20:00 Bakailao jana, bereziki auzoko aiton-amonei eskainia. Musikaz girotua.

23:00 Bolo saioak.

23:30 Erromeria, Mugu Panderoa taldearekin.

4 ZAPATUA

16:30 Haurrentzako jolasak, soinu jotzaileek girotuta.

Ondoren, zezentxoak eta pottokak.

Jarraian, Niala magoaren ikuskizuna.

Segidan, txokolate jana.

20:00 Emakumezkoen bolo txapelketa.

23:30 Erromeria, Fan&Go taldearekin.

1:00 Bolo txapelketa.

* Maalatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da, 19:00etatik aurrera.

5 DOMEKA

10:30 Jaieroko elizkizuna.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

10 BARIXAKUA

San Lorentzo Eguna

11:00 Meza nagusia. Haritz Dantza Taldearen aurrekua, musikari eta bertsolariekin.

Ooren, salda eta txorizoa.

Aire libreko zinea (Kalegoen plazan)

Piratas del Caribe: La
venganza de Salazar
13 Barixakua, 22:30

Lego Ninjago
(Euskaraz)
21 Zapatua, 22:30

La bella y la bestia
26 Eguena, 22:30

Señor dame
paciencia
28 Zapatua, 22:30

Bebe jefazo
14 Zapatua, 22:30

Gru 3:
Mi villano favorito
22 Domeka, 22:30

Guardianes de la
galaxia 2
27 Barixakua, 22:30

Kilian Jornet,
path to Everest
29 Domeka, 22:30

SANTUMOTZ EGUNA

Abuztuak 5

11:00 Meza. Santumotzeko zelaian.

Gero, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Segidan, Maialen Arzallus eta Amets Arzallus bertso-lariak.

Tartean, Harkaitz Allur eta Maialen Arzallus trikitilariak.

Gero, Imanol Albizu eta Karmele Gisasolaren harrija-sotze erakustaldia.

14:30 Bertso bazkaria. San Pedro jatetxean. Izen-emate: 943 740 010.

Iluntzera arte, Erromeria, Harkaitz Allur eta Maialen Arzallusekin.

AZKUEKO JAIK

Abuztuak 15, 16, 17

15 EGUAZTENA

San Roke bezpera

17:00 Kanpai jotzea eta suziriak.

18:30 Errosario santua. Auzoko ermitan.

22:00 Bolo jaurtiketa.

Bazkariak eta afariak emango dituzte karpan eta elkartean.

16 EGUENA

San Roke Eguna

9:00 Suziriak.

11:00 Meza nagusia eta Haritz dantza taldearen erakustaldia. Auzoko ermitan.

Ondoren, orga jasotze txapelketa, ez profesionalentzat.

18:00 Idi dema erakustaldia Urretxuko Ipiñarrieta eta Oromiñoko Tabernakua.

Segidan, Zezentxoak eta pottokak.

22:30 Erromeria, goizaldera arte. Naiara Manzidor eta Izarra Aizpuruarekin.

00:00 Bolo txapelketa.

17 BARIXAKUA

San Roke Txiki Eguna

9:00 Suziriak.

11:00 Meza. Auzoko hildakoen alde.

13:00 Txapel jaurtiketa.

14:00 Bazkaria, Baltzola eta Andonegi trikitilariak gurututa.

18:00 Haurrentzako jolasak.

Ondoren, txokolate jana.

Segidan, Zezentxo eta pottokak.

22:30 Erromeria. Baltzola eta Andonegi.

01:00 Errifaren zozketa.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK:

Egunez (*): 09:00-20:00

Iluntzean (*): 20:00-22:00

Larunbatak (*): 9:00-14:00

GUARDIAK 09:00 - 22:00

UZTAILA

13 Barixakua	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
14 Zapatua	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
15 Domeka	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
16 Astelehena	*FERNANDEZ / *BARRENETXEA
17 Martitena	*YUDEGO / *YUDEGO
18 Eguaztena	*ORUESAGASTI / *GARITAONANDIA
19 Eguena	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
20 Barixakua	*IBAÑEZ / *YUDEGO
21 Zapatua	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
22 Domeka	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
23 Astelehena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
24 Martitena	*FERNANDEZ / *BARRENETXEA
25 Eguaztena	*YUDEGO / *YUDEGO
26 Eguena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
27 Barixakua	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
28 Zapatua	*IBAÑEZ / *YUDEGO / *IBAÑEZ
29 Domeka	*IBAÑEZ / *IBAÑEZ
30 Astelehena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
31 Martitena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA

ABUZTUA

1 Eguaztena	*FERNANDEZ / *YUDEGO
2 Eguena	*YUDEGO / *YUDEGO
3 Barixakua	*ORUESAGASTI / *ETXEBERRIA
4 Zapatua	*YUDEGO / *YUDEGO
5 Domeka	*YUDEGO / *YUDEGO
6 Astelehena	*IBAÑEZ / *ETXEBERRIA
7 Martitena	*YUDEGO / *YUDEGO
8 Eguaztena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
9 Eguena	*FERNANDEZ / *ETXEBERRIA
10 Barixakua	*YUDEGO / *YUDEGO
11 Zapatua	*ORUESAGASTI / *ETXEBERRIA / *ORUESAGASTI
12 Domeka	*ORUESAGASTI / *ORUESAGASTI
13 Astelehena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
14 Martitena	*IBAÑEZ / *YUDEGO
15 Eguaztena	*FERNANDEZ / *FERNANDEZ
16 Eguena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
17 Barixakua	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
18 Zapatua	*FERNANDEZ / *GARITAONANDIA / *FERNANDEZ
19 Domeka	*FERNANDEZ / *FERNANDEZ
20 Astelehena	*ORUESAGASTI / *GARITAONANDIA
21 Martitena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
22 Eguaztena	*IBAÑEZ / *BARRENETXEA
23 Eguena	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
24 Barixakua	*ORUESAGASTI / ORUESAGASTI
25 Zapatua	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
26 Domeka	*BARRENETXEA / BARRENETXEA
27 Astelehena	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
28 Martitena	*ORUESAGASTI / *GARITAONANDIA
29 Eguaztena	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
30 Eguena	*IBAÑEZ / *BARRENETXEA
30 Barixakua	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 - (Soraluze) - 943 751 384

* Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) 943 254 410



Julen Ansola



Julen Ansola

Irati Agirreazaldegi



Eguzkia behera eta bere dirdiraren polita ere, antzera. Honekin batera, bere izpien galera. Izan ere, ilunabarrean badoaz itsasoko uretan murgil egitera.

Zerua ilundu aurreko orduetan iluntzen da itsasoko ura eta sartzen zaio logura. Moteltzen da olatuen abiadura, baina era berean azkartu isiltasunaren eta ametsen abentura.

Baina zer dugu kontuan hartu beharra? Zer da guretzat ilunabarra? Ikusteko ederra da itsaso gainean sortzen duen kolore more-hori-gorriko aparra, baina norbanakoari erreparatuz gero, eguneko une hori, arratsa apaltzen dena, ez ote da bizitzako momentu txarra? Urtetan aurrera joan ahala ahuldu egiten da gure indarra, edo hori da behintzat pentsatzen hasten garenean barruan sortzen zaigun harra. Ez, ordea, gure barruan modu baikorrean pizten bada eguzkiaren garra eta ahaztu adinaren pisuak maiz ekarri ohi duen negarra.

Urteen poderioz adinarena, baina urte batetik bestera pisua ez ote da lanarena? Hori arintzeko abuztua izaten da askok oportetarako aukeratzen duena, eta orduan, batek baino gehiagok hondartzako txokoetan, goizeko zein ilunabarreko eguzkiari begira hartzen du atseden. Aurten, gainera, euri mordo egin duenez urte osoan barrena, eguzkia da egunez zein iluntzean jendeak nahi duena.

Azken egunotan izan dugu eguzkia eta beroa; batzuentzat gozamena, eta besteentzat, endredoa. Bat baino gehiago bihurtu du hondartzako zein igerilekuko urak pozez eta lanak penaz eroa. Askoren buruan bueltaka ibiliko den galdera ziur asko hau da: nolakoa izango da aurtengo udaren geroa?

Eguzki printzen edertasuna, adinaren kezka edo oportetako atseden, hori da besteak beste ilunabarrak beregan hartzen duena. Baina Albert Einsteinek esan bezala zergatik da eguzki laranja-morea ilunabarrera iristen dena? Espazioaren eta denboraren aurka borrokan nekatuta dagoelako gertatu ohi da hori dena. Beraz, gozatu ilunabarrak eta oporren ostean bakoitzaren eguzki izpiek adieraziko dute atseden egunetan bizi izan dutena.

“Zerua ilundu aurreko orduetan iluntzen da itsasoko ura eta sartzen zaio logura”



J. BERBEL  ESTUDIOA

Ezkontzak
Haurdunaldiak
Jaunartzeak
ume eta haur erreportaiak
Enpresa bideo eta erreportaiak
Ekitaldi Instituzionalak
Kirol ekitaldiak

Orain, San Roke, 26
beheko bulegoan aurkituko gaituzu

688 728 299
jberbelestudioa@gmail.com
San Bartolome nº18



ARGI!!

EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz
Azaroaren 23tik abenduaren 3ra

UZTAILAREN 17a IZANGO DA KAMISETAK ESKATZEKO AZKEN EGUNA

16 urtetik gorakoentzat



Eskariak egiteko:

on-line: www.elgoibarkoizarra.eus
943 741 626
elgoibar@euskaraldia.eus

PREZIOA
10€



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea

MAALAKO parkean



HARITZ E.D.T.

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXXII. FOLKLORE JAIALDIA

AFRICAN TUMBAS - *KENYA*

OGONKI - *SIBERIA*

HARITZ EDT - *EUSKAL HERRIA*

2018ko uztailaren 20an, ostirala

22:30ean, MAALAKO parkean



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



HARITZ E.D.T.
MUSIKA GAZTE
FEDERAZIOA

